

## **DEIALDIA, OPOSIZIO BIDEZ BETETZEKO IRUÑEKO UDALTZAINGORAKO UDALTZAINAREN 5 PLAZA.**

### **IZENDAPENA**

Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki hau hartu zuen 2026ko irailaren 21ean egindako bilkuran:

IKUSIRIK hala Iruñeko Udaltzaingoan aritze aldera udaltzainen 5 plaza oposizio bidez betetzeko deialdiko – 2026ko 14. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, urtarrilaren 20koan, argitaratua– kalifikazio-epaimahaiaren aktak, nola Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolako zuzendariaren ebazpenak, eta ikusirik espedientean jasotako agiriak, egiaztatu da oposizioa gaingitu duten izangaietatik bik, deialdian eskainitako plaza kopuruan sarturik, hautaketa-prozesuko gainerako izangaiek Oinarrizko Prestakuntza Ikastaroa amaitu aurretik izendatuak izateko baldintzak betetzen dituztela.

Horrenbestez, deialdiaren zortzigarren oinarriarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Javier Pastor López Iruñeko udaltzain izendatzea eta behin-behinean 1-304339-217 plaza esleitzea. Ezarri da plaza jabetzan hartzeko data 2026ko urriaren 1a izanen dela.
2. Francisco Javier Romero Granero Iruñeko udaltzain izendatzea eta behin-behinean 1-304339-215 plaza esleitzea. Ezarri da plaza jabetzan hartzeko data 2027ko apirilaren 1a izanen dela.
3. Izendapena Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta deialdiaren web-fitxan argitaratu dadila agintzea.

Erabaki honen aurka honako errekurtsio hauetako bat paratzen ahal da:

- a) Berraztertze errekurtsioa, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, egintza argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- b) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta hortik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Auzialdiko Auzitegiko administrazioarekiko auzien atalari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Iruñean, 2026ko irailaren 21ean. Tokiko Gobernu Batzarreko idazkaria, Garbiñe Bueno Zabalza.